



<b>IKASTETXEA</b>	<b>AIXERROTA BHI</b>	<b>KODEA</b>	<b>015109</b>
<b>Arloa/ Irakasgaia</b>	<b>ENPRESAREN EKONOMIA</b>	<b>Zikloa/Maila</b>	<b>2. BATX</b>
<b>Irakasleak</b>	<b>Karmele Torralba Alfonso</b>	<b>Ikasturtea</b>	<b>2014~15</b>

<b>HELBURUAK</b>	<b>EBALUAZIO - IRIZPIDEAK</b>
<p><b>H1.-</b> Zabalduen dauden enpresa moten zer-nolakoa, funtzioak eta ezaugarri nagusiak identifikatzea, mota horiek sailkatzea eta ikustea zer abantaila eta desabantaila dituen haietako bakoitzak, enpresa motak desberdintzen ikasteko.</p> <p><b>H2.-</b> Aintzat hartzea zer eginkizun betetzen duten enpresek kontsumitzaileen beharrak betetzeko eta gizartearen bizi-kalitatea eta ongizatea handitzeko orduan; era berean, nork bere irizpideak osatzea, enpresen disfuntzioei eta gizarte-garapenean betetzen duten zeregin protagonistari buruz, ekintzaile izatearen balioaz, enpresa-kulturaz eta enpresa publikoak eta pribatuak betetzen duten eginkizunaz irizpide argia izateko.</p> <p><b>H3.-</b> Enpresen jarduera ekonomikoa aztertzea, bereziki ingurune hurbileko enpresena, eta horretarako: haietako antolaketa-esparru bakoitzaren funtzio espezifikoetik abiatzea; haietan barne-harremanak nola ezartzen diren ikustea; kanpo-mendekotasuna kuantifikatzea, eta hori guztia inguruan dugun produkzio-mundua ulertzeko eta aztertzeke eta hari lotutako arazoak konpontzeko egitea.</p> <p><b>H4.-</b> Ikustea zer-nolako garrantzia duten enpresentzat eta gizartearentzat ikerketak, berrikuntza teknologikoen eta globalizazio ekonomikoen, eta horiek guztiak lehiakortasunarekin, hazkundearekin eta enpresa-kokapenarekin erlazionatzea, enpresa-jardueraren ondorioz sortzen diren fenomeno ekonomiko eta sozialak aztertu eta ebaluatzeke.</p> <p><b>H5.-</b> Kritikoki ebaluatzea enpresa-jarduerak izan ditzakeen gizarte- eta ingurumen-ondorioak, eta natura-baliabideak agortzearekin duen zerikusia, eta adieraztea</p>	<p><b>I1.-</b> Enpresan dauden elementuak, haien motak, funtzioak eta elkarren arteko erlazioak ezagutzea eta interpretatzea, eta haietako bakoitzaren ekarpena balio-estea, enpresa motaren arabera.<b>H1</b></p> <p>1.1.- Ea ohartzen den enpresak bere ingurunearekin dituen interdependentsia-harremenez.</p> <p>1.2.- Ea identifikatzen dituen faktore garrantzitsuenak; besteak beste: merkataritza-, lan- eta zerga-arauak, botere publikoak, egoera ekonomikoa, eboluzio teknologikoa, enpresa-erakundeak, sindikatuak, kontsumitzaileak, biztanleriaren dinamika, kokapen industrialak eta ingurumenarekiko erlazioa.</p> <p>1.3.- Ea bilatzen duen erlazio hori agerian gelditzen den adibide zehatzik.</p> <p>1.4.- Ea aztertzen duen zehatzago kanpo-faktoreek enpresan eragindako aldaketa-prozesu jakin bat.</p> <p><b>I2.-</b> Enpresak diharduen sektorearen ezaugarri nagusiak identifikatzea, eta, haietan oinarrituta, estrategiak eta hartutako erabakiak azaltzea, bai eta izan daitezkeen gizarte- eta ingurumen-ondorioak ere. <b>H1 H2 H3 H4</b></p> <p>2.1.- Ea dakien zer irizpide erabiltzen diren enpresak sailkatzeke: zer jarduera mota egiten duten; neurria; diharduten merkatu mota; hartu duten formula juridikoa.</p> <p>2.2.- Ea aztertzen eta ebaluatzen dituen, ikuspuntu ekonomikotik eta sozialetik ere, enpresen neurri- eta jabetza-hautuen faktore positiboak eta negatiboak.</p> <p>2.3.- Ea lortzen duen enpresen funtzionamenduari buruzko ikuspuntu globala.</p> <p>2.4.- Ea bereizten duen jarduera-arlo bakoitzaren funtzio partziala: hornikuntza, ekoizpena eta merkaturatzea, inbertsioa, finantzaketa eta giza baliabideak, bai eta haien arteko erlazioak ere.</p> <p><b>I3.-</b> Merkatuaren ezaugarriak aztertzea eta, haien arabera, enpresa batek zenbait egoeratan eta kasuan kasuko helburuekin erabaki ditzakeen marketin-politikak azaltzea.<b>H7</b></p> <p>3.1.- Ea merkatua ezaugarritzen duen, lehiakideen kopuruaren, saldutako produktuaren eta abarren arabera.</p> <p>3.2.- Ea marketin-politikak identifikatu eta kasu jakin bakoitzera egokitzen dituen.</p> <p>3.3.- Ea interpretatu eta ebaluatzen dituen marketin-estragiak, eta ea hartzen dituen kontuan, ebaluazio horretan, etika, ingurumen eta beste zenbait arlotako</p>



nolako eragina duen pertsonen, gizabanako gisa, duten bizi-kalitatean eta, kolektibo gisa, gizarte osoan. Eta horren bidez identifikatzea eta aztertzea enpresa-arrakasta ulertzeko dauden bi moduen artean sor daitezkeen gatazka; izan ere, ikuspegi baten arabera, arrakasta emaitza-kontuaren bidez bakarrik neurtzen da, baina besteak daukan planteamenduaren arabera, arrakasta balio-esparru zabalago batean neurtu behar da, eta, besteak beste, hauek kontuan hartzen ditu: ingurumena (zaratak, baliabideak agortzea, hondakin kutsagarriak), lan-baldintza osasungarriak, bidegabekeriaren zuzenketa balio erantsiaren banaketan, kalitate-bermeak, erabakietan parte hartzea eta ikerketaren sustapena.

**H6.-** Erakundeen eta taldeen funtzionamendua aztertzea, gatazken agerpenaren eta konponketaren ikuspegitik, eta, horrenbestez, haien tipologia deskribatzea, eta ikertzea interes-gatazkek pertsonen artean sortzen dituzten erlazioen paradigmak, enpresa formal eta informal baten antolaketa interpretatzeko, eta enpresa-antolakuntzaren funtzionamendu eraginkorra galarazten duten disfunczioak edo arazoak konpontzeko bideak antzeman eta proposatzeko.

**H7.-** Zenbait enpresaren marketin-politikak identifikatzea, haien produktuak bideratzen diren merkatuen arabera, eta aztertzea zer erabaki hartzen dituzten prezioei, produktuei, promozioari eta banaketari dagokienez, kasu bakoitzari egokituta, eta kontuan izatea beste alderdi batzuk -etikoak, ingurumen arlokoak eta abar-, bai merkatu bat ezaugarritzeko lehiakideen kopuruaren, saldutako produktuaren eta abarren arabera, bai marketin-politikak identifikatzeko, bai, azkenik, marketin-estrategiak interpretatu eta ebaluatzeko.

**H8.-** Aintzat hartzea nolako garrantzia duen ekonomia- eta finantza-informazioak enpresakudeaketaren oinarri gisa, bera baita enpresan egon litezkeen desorekak antzemateko modua, eta modu horiek dira: enpresen urteko kontuen egoerak oro har interpretatzea, haien esanahia azaltzea, lortutako informazioan oinarrituta egoeraren

alderdiak.

**I4.-** Enpresa baten antolaketa deskribatzea, haren jardura gauzatzen duen ingurunearen arabera egin daitezkeen aldaketak kontuan hartuta. **H4 H5**

4.1.- Ea deskribatzen dituen ezaugarri hauek: erakundearen egitura, zuzendaritza moldea, informazio- eta komunikazio-bideak, erabakietan dagoen parte-hartzearen maila eta enpresaren antolaketa informala.

4.2.- Ea aztertzen eta hartzen duen kontuan inguruko erakundeetan dagoen antolaketa (ikastetxea bera, erakunde den aldetik; bisitatu duen enpresaren bat; kultura-kluba; eta abar).

4.3.- Ea ikusten duen arazorik eta disfuncziorik inguruko erakundeetako antolaketa.

4.4.- Ea aplikatzen duen dakiena erakunde jakin batean, eta ea interpretatzen duen haren egitura formala eta informala.

**I5.-** Kasu erraz batean, enpresa baten irabazien eta kostuen egitura zehaztea, eta haren etekina zein errendagarritasun-atalasea kalkulatzeko. **H5 H2**

5.1.- Ea bereizten eta egituratzen dituen enpresaren irabazi eta kostu orokorrak.

5.2.- Ea zehazten duen enpresaren ekitaldi ekonomikoan zehar izandako etekina edo galera.

5.3.- Ea kalkulatzeko duen enpresak irauteko beharrezko salmenta-atalasea.

**I6.-** Inbertsio-proiektu bakun batzuk ebaluatzea, eta, horrenbestez, aukera abantailatsuen aukeratzeko arrazoia ematea; era berean, hipotesi bakun batean, izan daitezkeen finantzaketa-iturriak bereiztea, eta aukera egokiena arrazoitzea. **H8**

6.1.- Ea dakien funtsean nolakoak diren inbertsioak aukeratzeko eta ebaluatzeko metodo estatikoak (berreskuratze-epa) eta dinamikoak (egungo balio garbiaren irizpidea).

6.2.- Ea aztertzen dituen kanpo-finantzaketako hipotesi jakin batean izan daitezkeen aukerak, haien kostuak eta amortizazio-bideak.

6.3.- Ea ebaluatzen dituen enpresaren kanpoko zein barneko finantzaketa-iturriak.

6.4.- Ea aztertzen eta ebaluatzen dituen behar jakin batetik abiatuta enpresek finantza-merkatu jotozko dituzten aukerak.

6.5.- Ea ondo argudiatuta proposatzen dituen finantza-beharra dagoen kasu jakin batera ongien egokitzen diren finantza-aukerak.

**I7.-** Balantzeko eta galdu-irabazien kontuko datu garrantzitsuenak identifikatzea; haien esanahia azaltzea; egoera diagnostikatzea, lortutako informaziotik abiatuta, eta hobetzeko neurriak proposatzea. **H8 H10 H11**

7.1.- Ea bereizten dituen ondare-elementuak eta egokituta daukaten eginkizuna.



diagnostikoa egitea, ondare-elementuak zehaztea, bai eta esleitura daukaten funtzioa eta ondare-masetan zuzen bilduta daudela ikustea ere, eta haietako atal bakoitzaren ekonomia- eta finantza-zentzua interpretatzea; eta, ondorioz, zuzenketa neurriak hartzeko, inbertsioen eta haien finantzaketaren arteko elkarrekotasuna interpretatzea, eta, ratio soilen bidez, izan daitezkeen desorekak atzematea, betiere, ondare orekatua izatearen komenigarritasuna aitortuz.

**H9.-** Informazioa lortu, aukeratu eta interpretatzea, hura era autonomoan tratatuz, bitarteko informatikoak erabiliz, hala egokituz gero, eta informazioa enpresa-erabakiak hartzeko baliatuz, haren azterketan eta interpretazioan zorrotz jokatzeko delat aintzat hartuta, ezaguera teknologikoak enpresaren ekonomiako kasu errazen azterketan eta konponketan erabiltzeko.

**H10.-** Enpresa-proiektu errazak sormenez eta ekimenez diseinatzea eta lantzea, eta horretarako: haren garapena antolatzea eta kudeatzeko beharrezko bitartekoak eta elementuak proposatzea; bideragarritasun ekonomikoa ebaluatzea; erabakiak taldean hartzea, irakasgaiaren edukiak enpresa-proiektu bakun batean era sortzailean aplikatzeko; zailtasunak, ahuleziak eta aukerak ebaluatzea; eta ekintzaileak enpresak sortzeko proiektuei heldu ahal izateko funtsezko zenbait jarrera garatzea, hala nola taldean lan egiteko jarrera izatea, sormena eta lanaren planifikazioa eta antolaketa.

**H11.-** Jakitea zer ezaugarri bereiz ditzaketen enpresaren antolaketa Euskal Herrian eta haren europar ikuspegia; Enpresaren Ekonomiaren ezaguera orokorrak gure ingurunearen berezitasunera egokitzea eta aldatzea; eskualdeko enpresa-tipologia ezartzea, oinarritzatzenbait datu hartuta - produkzio-unitate bakoitzeko enplegatutako langileen kopurua, esportazio-oinarria eta enpresen forma juridikoa-; tipologia hori, bereziki, Euskal Herrian beste eskualde batzuetan dagoenarekin konparatzea, bai eta, oro har, Espainiako eta Europar Batasuneko beste lekuetan dagoenarekin konparatzea

7.2.- Ea zuzen biltzen dituen enpresaren ondasunak, eskubideak eta betebeharrak ondare-masatan.

7.3.- Ea interpretatzen duen inbertsioen eta haien finantzaketaren arteko elkarrekotasuna.

7.4.- Ea antzematen dituen, ratio soilen bidez, enpresaren ondare-orekan, kaudimenean eta palanka-efektuan izan daitezkeen desorekak.

7.5.- Ea zuzentze-neurri egokiak proposatzen dituen, desorekak antzemanaz gero.

7.6.- Ea ohartzen den ondare orekatuaren komenigarritasunaz.

7.7.- Ea hartzen duen kontuan informazioa garrantzitsua dela erabakiak hartzeko orduan.

**I8.-** Egiatzko edo alegiazko enpresen egoera orokorrak aztertzea, baliabide material egokiak eta informazioaren teknologiak erabiliz. [H1](#) [H2](#) [H3](#) [H4](#) [H5](#) [H6](#) [H7](#) [H8](#) [H9](#) [H11](#)

8.1.- Ea ebaluatzen duen, zenbait kasu aztertuta (interesen gatazka, sektore baten krisia, industria-birmoldaketa edo beste kasu interesgarri batzuk), enpresaren jardura ekonomikoa, enpresa interes askok (besteak beste, enpresaburuen, kontsumitzaileen, sindikatuen, estatuaren eta tokian tokiko gobernuaren interesek) bat egiten duten gunea den aldetik.

8.2.- Ea ateratzen dituen egungo enpresan nagusi den balio-sistemari buruzko ondorioak, eta ea proposatzen dituen egungo enpresa-ereduaren bilakaeran lagun dezaketen balioak.

8.3.- Ea erabiltzen dituen ezaguera teknologikoak kasu errazen azterketan eta konponketan.

8.4.- Ea balioesten dituen informazioa aztertzeko eta interpretatzeko orduan, zorrotasuna eta objektibotasuna.

8.5.- Ea era planifikatuan, autonomiaz eta ekimenez egiten duen lan.

**I9.-** Enpresa-proiektu bakun bate ekimenez eta sormenez diseinatzea eta planifikatzea, eta haren bidegarritasuna ebaluatzea. [H10](#)

9.1.- Ea era sortzailean aplikatzen dituen irakasgaiaren edukiak enpresa-proiektu simple batean

9.2.- Ea identifikatzen dituen enpresa - idea batek dituen zailtasunak, ahuleziak eta aukerak

9.3.- Ea planifikatzen dituen enpresa eratzeko ekonomia- eta finantza-alderdiak eta lege formalitateak.

9.4.- Ea ezartzen dituen beharrezko baliabideak eta tramiteak antolaketa-eredua, merkataritza-politika eta bidegarritasun ekonomikoaren azterketa simulatuak.

9.5.- Ea hartzen dituen kontuan taldean lan egitearen beharra eta garrantzia

9.6.- Ea aintzat hartzen dituen lanaren antolaketa, planifikazioa eta sormena, funtsezko jarrerak baitira, enpresa sortzeko proiektuei ekin ahal izateko

**I10.-** Sistematikoki balioestea eta erabiltzea gizarte-zientzien jarduerari lotutako portaerak; adibidez: jakin-



ere; horrenbestez, kokatzen garen esparruetako bakoitzeko produkzio-sarearen berezitasunaz ohartzea, eta kasu bakoitzetik ondorioztatzen diren abantailak, desabantailak eta enpresa antolatzeko erak aztertzen ahalegintzea.

mina, pertseberantzia, norberaren gaitasunetikiko konfiantza, ordena eta berraztertze sistematikoa. Era berean, talde-lanean integratzea; besteren iritziak errespetatzea eta aintzat hartzea, ikasteko iturria diren aldetik, eta lankidetzan aritzea, helburu komuna lortzeko. [H1](#) [H2](#) [H3](#) [H4](#) [H5](#) [H6](#) [H7](#) [H8](#) [H9](#) [H11](#)

10.1.- Ea ohartzen den garrantzitsua dela matematika-eragiketak egiten eta gizarte-zientzien berezko prozedurak erabiltzen jakitea, eguneroko eta enpresako problemak errazago ebazteko tresnak baitira.

10.2.- Ea lanerako interesik erakusten duen.

10.3.- Ea emaitzak ordenatuta eta argi eta garbi aurkezten dituen.

10.4.- Ea prozesuak eta emaitzak zorrotz justifikatzen eta azaltzen dituen.

10.5.- Ea laguntzen duen talde-lanerako zereginen banaketan.

10.6.- Ea planteatzen duen alternatibarik, eta ea hartzen duen aintzat taldean eztabaidatzeko eta iritziak trukatzeko prozesua, hobetzeko aukera den aldetik.

**EDUKIEN SEKUENTZIA**

( denbora -tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

<b>1. EBALUAZIOA</b> (40+ 2 ordu idatzizko frogetarako)	
<b>I. MULTZOA.- ENPRESA</b> UD. 1. (E1) Enpresa eta enpresaburua H1 H3 H4 H10	8 ordu
<b>II. MULTZOA.- ENPRESAREN GARAPENA</b> UD. 2. (E2) Merkataritza-leggedia eta zergei buruzko legedia H1 H2 H10 H11 UD. 3.(E3) Enpresa motak H1 H3 H4 H10 H11	8 ordu 8 ordu
<b>III. MULTZOA.- ENPRESAREN ANTOLAKETA ETA ZUZENDARITZA</b> UD.4. (E4) Enpresa-estrategia eta garapena eta Enpresa-zuzendaritza. Antolakuntza H5 H6 H8	4 ordu
<b>IV. MULTZOA.- EKOIZPEN-FUNTZIOA</b> UD. 5. (E5) Hornidura-arloa H5	12ordu
<b>2. EBALUAZIOA</b> (33+ 2 ordu idatzizko frogetarako)	
<b>IV. MULTZOA.- EKOIZPEN-FUNTZIOA</b> UD. 6. (E6) Ekoizpen-arloa H5 H6	12ordu
<b>V. MULTZOA.- ENPRESAREN MERKATARITZA-ZEREGINA</b> UD. 7. (E7) Merkaturatze-arloa. Marketina H2 H7 H9 H10 H11	5ordu
<b>III. MULTZOA.- ENPRESAREN ANTOLAKETA ETA ZUZENDARITZA</b> UD.8. (E8) Giza-baliabideen H6 H2 H11	4ordu
<b>VI. MULTZOA.- FINANTZA-FUNTZIOA</b> UD. 9. (E9) Finantzaketa- eta inbertsio-arloa H8 H9 H10 H11	12ordu
<b>3. EBALUAZIOA</b> (39+ 2 ordu idatzizko frogetarako)	
<b>VI. MULTZOA.- FINANTZA-FUNTZIOA</b> UD. 19. (E9) Finantzaketa- eta inbertsio-arloa H2 H8 H9 H10 H11	4 ordu
<b>VII. MULTZOA.- INFORMAZIOA ENPRESAN</b> UD. 10. (E10) Enpresaren kontabilitatearen egoera-orriak H8 H9 H10 H11 UD.11. (E11) Enpresaren kontabilitateko egoera-orrien analisisa H8 H9 H10 H11	16 ordu 19 ordu



## METODOLOGIA

[edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

### EDUKIEN ANTOLAKETA ETA JARDUERA MOTAK

- Hasiera: gaiaren aurkezpena), lotura duen egoera, bideo, pelikula edo notizia baten bidez (bide batez gaiaren edukiak eta helburuak azalduko dira)
- Garatzeko:
  - Irakaslearen gaiko kontzeptu teorikoen azalpena. (eskemak, mapa kontzeptualak, ariketen ebazpena, selektibitateko ariketen ebazpena...)
  - Ikasleen gaiko kontzeptu teorikoen lanketa (ariketak egitea banaka edo taldeka, Komunikabideetako berrien eztabaida eta komentarioa,...)
- Amaitzeko: Ariketen Ebazpena (selektibitatearen agertutakoak ere) edo taldeko lanak aurkezpena, banakako lana, irteerak, jokua, debateak, simulazioak edo egoera errealean azterketak

### BALIABIDE DIDAKTIKOAK

- apunteak
  - Komikiak
  - Pelikulak eta bideoak
  - jokuak
  - Komunikabideetako albisteak (egunkariak, telebista eta irratiak)
- IKT baliabideak:
- Mintegiko eta ikasleen helbide elektronikoko korporatiboa, informazioa elkartrukatzeko
  - gelako ordenagailua, proiektore eta internet konexioa, baliabide digital ezberdinak erabiltzeko: egunkari digitalak, telebista, pwp, infografiak pdf-ak eta bideo adierazgarriak pelikulak eta komikiak: (nola sortu koop, la empresa en media hora,... )
  - web interesgarriak : [3w.cincodias.es](http://3w.cincodias.es)(E2,E3,E10), [3w.consumer.es](http://3w.consumer.es)(E2), [3w.etb.com](http://3w.etb.com), [3w.youtube.es](http://3w.youtube.es), [3w.europa.eu](http://3w.europa.eu)(E3-E11), [3w.ine.es](http://3w.ine.es)(E8), [3w.asle.es](http://3w.asle.es)(E3), [3w.lafranquicia.es](http://3w.lafranquicia.es)(E3), [3w.expansion.es](http://3w.expansion.es)(E3-E11), [3w.ecomur.es](http://3w.ecomur.es), [3w.ecobachillerato.es](http://3w.ecobachillerato.es),...
  - Joku interaktiboak: la bolsa virtual (E9,E3),

### TALDEKATZEAK

Banakako lana: ikasleak berak hausnartzeko edo irakaslearen laguntza behar dutenean.

Talde txikiak: lankidetzeta lantzeko, taldean hausnartzeko eta haien arteko iritziak elkartrukatzeko.

Klase osoaren taldea: ideiak komunean jartzeko, debateak.

### ESPAZIOEN ANTOLAKETA

Taldearen gela: orokorrean, klasea emateko, bideoak/dokumentalak ikusteko.

Informatika gela: ikasleek internetetik informazioa lortzeko eta lanak egiteko eta prestatzeko.

### DENBORAREN ANTOLAKETA

Eskola orduaren hasiera, gaiari hurbilketa eta berkokapena

Eduki berrien lanketa era desberdinez

Eduki horien hausnarketa ordua amaitzeko

Astean zehar, ariketak edo lan taldeak egin behar direnean azkeneko klase orduak erabiliko dira

### INDARTZEKO ETA ZABALTZEKO NEURRIAK

Behar duen ikasleari jarraipen pertsonalizatuagoa egingo zaio ekimen desberdinak egingo dira:

- Errefortzuzkoak → gutxienezko edukiak, ariketak lantzea eta galdera laburrak.
- Zabaltzekoak → ariketa konplexuagoak, ikerketa txikiak, simulazioak, txosten gehigarriak, lehiaketetan parte hartzea



<b>EBALUAZIO TRESNAK</b> [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portafolioa, kontratu didaktikoa...]	<b>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK</b> [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ <b>GALDERAK:</b> galdetegiak ( gaiaren hasieran eta amaieran).</li><li>▪ <b>LANAREN BEHAKETA, GELAKOA ZEIN ETXERAKOA:</b> kontrol-zerrenda, errubrikak, behaketa, ikasgelako koadernoak.</li><li>▪ <b>IKASLEEN LANAREN AZTERKETA (banakakoa eta taldekoa):</b> kontrol zerrendak, ikasgelako koadernoak, behaketa, errubrikak.</li><li>▪ <b>PROBA ESPEZIFIKOAK:</b> unitatea, ebaluaketa edo irakasgai osokoak (gaiaren arabera izan daitezke test-ak, erantzun laburrak eta zabalak, deskriptiboak, analitikoak, buruketak...).</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ <b>IDATZIZKO PROBAK % 80</b> Bi idatzizko frogak ebaluaketa bakoitzean. Idatzizko frogen kalifikazioa, azterketa biren portzentaiak gehituz lortuko da. Ebaluaketa bakoitzean, frogak biak ez dute berdin balio behar (edukien arabera) Bi frogen kalifikazioa gutxienez 4 izan behar da. Lehenengo froga gaindituz gero, bigarren frogan gainditu gabe gelditzen den materia sartuko da bakarrik. Lehenengo frogako emaitza 4 baino gutxiagokoa bada, bigarren frogan ebaluaketa osoa sartuko da. <a href="#">H1- H11</a></li><li>▪ <b>PROPOSATUTAKO JARDUERAK ETA LANAK %10</b> (banakakoak eta talde-lana). Baloratuko da: datan aurkeztea, galdetutakoa erantzutea, dena eginda egotea, eta talde-lana elkarrekin eginda izatea <a href="#">H1- H11</a></li><li>▪ <b>JARRERA %10</b> Baloratuko da: parte hartzea klasean eta eztabaidetan, eguneroko lana, gaiarekiko interesa, ikaskideei laguntzea, gai berriak gelara ekartzea, gelako lan giroa ez etetea, bertaratzea, puntualitatea, materiala zaintzea, errespetua, etxerako lanak egitea, ikastetxeak gelan jarritako bizikidetzara arauak bete eta zaintzea <a href="#">H1- H11</a></li></ul> <p>Ebaluazioak gainditzeko gutxienezko nota 5 da, kontuan hartzen lehen aipatutako ponderazioa (80-10-10)</p>



## EBALUAZIOAREN ONDORIOAK

[indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...]

### KURTZOAREN KALIFIKAZIOA

Irakasgai honen edukiak, oso zabalak eta desberdinak direnez, irakasgaia gainditzeko ebaluaketa guztiak gaindituta izan behar dira.

Hiru ebaluaketen (edo euren errekuperaketen) kalifikazioen batez bestekoa izango da kurtsoaren azken nota.

Nota hobetzeko, ikasleak, froga idatzia egin dezake kurtso osoko edukiekin, froga horretan lortutako nota izango da behin-betikoa.

### ERREKUPERATZEKO SISTEMA

Gainditugabeko ebaluaketa errekuperatzeko idatzizko froga bat finkatuko da ebaluaketa saioa pasatu eta 2-3 astera (3.ebaluazioan izan ezik) . Froga horretan ebaluaketa horretako eduki guztiak sartuko dira. Honez gain, irakasleak gainditu gabeko edukiei buruzko jarduerak proposatu ahal ditu erreforzatzeko. Errekuperazioen gehienezko nota 5 da eta idatzizko froga edukiko da kontuan soilik.

Ebaluaketa bakoitzaren errekuperaketa ez gainditzeak suposatzen du ebaluaketa hori gainditzeke dagoela Maiatzako ohiko deialdirako.

Ohiko deialdian ebaluaketak banan banan galdetuko dira eta bakarrik egin beharko dira gainditu gabeko ebaluaketak (ikasgai osoa gainditu gabe duenak froga bakarra egingo du kurtso osoko edukiekin).

Ohiko deialdian gainditzen ez bada, Ekainaren ezohiko deialdian ere ebaluaketak banan banan galdetuko dira eta bakarrik egin beharko dira gainditu gabeko ebaluaketak (ikasgai osoa gainditu gabe duenak froga bakarra egingo du kurtso osoko edukiekin)

### EBALUAKETA JARRAIA GALTZEA

Ikasle batek hutsegiteen %20 gainditzen baldin badu hiruhilabete batean, ebaluaketaz ebaluaketa ebaluatua izateko eskubidea galduko du (201/2008 EAeko Dekretua, 38.art) . Ebaluaketa gainditzeko ohiko edo eta ezohiko deialdiara aurkeztu beharko da.

### GAINDITUGABEKOAK

Ekonomia (1.batx) eta Enpresa Ekonomia (2.batx) irakasgaien arteko prelatzioa ez dagoenez, ezin da lehenengo mailako irakasgaia gainditu bigarren mailako ebaluaketa bat gainditzean.

## OHARRAK

Idatzizko froga batera etortzerik ez duenari (arrazoia edozein dela), ez zaio errepikatuko aukera, hurrengo aukeran ebaluatuko zaio